

Ermuko xake taldeak 25 urte bete ditu

Atzo izan zela dirudien arren, 25 urte dira jada Ermuko Xake Taldea abian jarri zenetik. Egoitza ezberdinak izan baditu ere, gaur egun Udal Liburutegian dauka bere kokaleku nagusia. Makina bat haur eta gazte pasa dira bertatik eta urte hauei guztiei gainbegiratua egiteko xake taldeko kide diren David Perez Cela eta Ion Gomezekin izan gara.

- 25 urte bete ditu xake taldeak...


Hala da bai. Gu biok jaioberri edo jaiotzeke ginen garaietan sortu zuten Elkartea xakea gustuko zuten batzuk. Urteen poderioz, gure bizitzaren parte bilakatu da eta hemendik gure eskerrik be-roenak eman nahi dizkiegu urteetan lan ikaragarria egin duten guztiei. Denak ezin dira aipatu, baina Igon Ziarso-lo, Iñigo Insausti, Inazio Fernandez eta asko eta askoren izenak datozkigu gogora.

- Zein egoeratan da egun?

Edozein Elkartetan gertatzen diren fase guztiak bizi izan ditugu. Goren gorenean ilusioz ginen garaiak izan ditugu, garai lasaiagoak ere bai, baina azken urteak tamalez, elkarteari eusten ere badugu nahikoa lan. Euskal xake ligan jokatzeko ere taldea osatu ezinik gabilta.

- Euskal Herri mailan goreneko mailan izan zineten...

Urte gozoak eta halaber



gogorrak izan ziren haiek. Euskal Herriko ohorezko ligan eman genituen 2 urte, Euskal Herriko kadete txapelketa ere irabazi zuen David Cantadorrek, xake azkarreko txapelketa asko irabazi genituen. Horiek, dena den, ondorioak ere ekarri zituzten elkartera. Asteburu asko ziren xakearen zerbitzura eta bizitzan adinarekin asko aldatzen dira gauzak.

- Herrian ere lana egin izan duzue...

Lan horri oraindik ere eusten diogu. Herriko ikastetxe ezberdinekin elkarlanean, eskolarteko txapelketa ospatzen dugu urtero eta horrez gain, gazteentzako xake ikastaroak ere eman izan ditugu urteetan. Harrobi

sendoa izan dugu beti. Horrez gain, Gaztela eta Leon, Galiziar Elkartearen, Andaluziako Elkartearekin eta Gaztela-Mantxa Elkarrekin ere elkarlanean, xake txapelketak ospatzen ditugu.

- Herritik kanpora ere maiz atera zarete...

Nazioarteko txapelketetan parte hartzeaz gain, haurren gurasoen laguntzaz, xake topaketa askotan izan gara. Gurasoen lana ere eskertu beharrean gara, haien babes eta laguntza ezinbestekoa izan da eta.

- 25 urteak ospatzeko, zein asmo duzue?

Urriaren 17an, xake txapelketa bat antolatu genuen Lobiano Jauregian eta Euskal Herriko herri ezberdine-

tatik etorri ziren jokalaria. Egun polita izan zen. Udazkenean, urte hauetan guztietan elkartean aritu garen kide denok, afaritxo bat egiteko asmoa dugu.

- Webgunea ere baduzue...

Duela zenbait urte Ion Gomezek egin da eta bere helbidea www.ermukoxake-taldea.tk da.

- Aurrera begira, zein asmo?

Nahiko lan badugu gaur egun egiten dugun apurrari eusten. Etorkizun zaila dauka gureak. Jende berri gutxi dator atzetik, baina hala ere Elkarteko kideon arteko harremanari eutsiko diogu eta horrek ere bere garrantzia duela uste dugu.

Asier Ibaibarriaga

Pub Dakota



Probaleku, z/g
Ermua (Bizkaia)

dakotaermua@hotmail.com

Ardo banatzailea:

Riedel
Avgstvs
Clos Mogador
Yllera
Cantosán
Luis Cañas

Hugel&Fills
Anima Negra
Irache
Cillar de Silos
Vriego
Laurona

DISTRIBUCIONES **ARRAL**
TELEFONOA: **943 17 60 75**